



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## ARABAKO KALKULUGUNEA SOZIETATEAN ANALISTA FUNTZIONALAREN ZAZPI LANPOSTU BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Deialdiaren kodea: 2026001

### LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Produktuaren Alorrean integratuko dira, proiektuaren buruaren eta, aldi berean, alorraren arduradunaren menpe.

Funtzio hauek beteko dituzte:

- Erabiltzaileen beharrak aztertzea
- Aplikazioaren edo sistemaren zati bakoitza diseinatzea edo parametrizatzea, teknologiaren arabera: datu eredutik erabiltzaile interfazera
- Aplikazioaren edo sistemaren alderdi guztiak dokumentatzea, metodologiaren arabera
- Garapenen funtzionamendua baliozkotzeko beharrezko probak zehaztea
- Garapenak baliozkotzea eta onartzea
- Ingurune desberdinetan ezartzea kudeatzea

### BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute [2026001@qualisconsultores.es](mailto:2026001@qualisconsultores.es) helbidera oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidali beharko da, bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

Eskaerak aurkezteko epea **2026ko Apirilaren 8an** amaituko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULUA:**

- Zientzien edo teknologiaren arloko lizentzia, ingeniaritza edo gradua, sistema informatikoen, komunikazioen edo zibersegurtasunaren arlokoa.

## **LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**

### **1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOEN EBALUAZIOA:**

**Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa izango da (GAI – EZ GAI).**

#### 1. Ezagutza funtzionalak eta metodologikoak

Betekizunak biltzea eta aztertzea

- Garapen metodologiak, tradizionalak eta/edo arinak
- Administrazio publikoen edo erakunde handien negozio prozesu osoen azterketa sakona

#### 2. Lotutako ezagutza teknikoak

- Prozesuen eta datuen ereduak egitea, erakundea-lotura eta UML
- Softwarea diseinatzeko printzipioak. Modulatzea, kohesioa, akoplamendua. Patroiak diseinatzea
- Aplikazioen arkitekturak. Mikrozerbitzuak vs monolitoak, APIak eta integrazioak
- SQL vs NoSQL datu baseak
- Garapen eta arkitektura taldeekin hitz egiteko kultura teknikoa (aztarnak/logak irakurtzea; osagaiak, zerbitzuak, APIak eta hedapenak ulertzea). Adibideak: JAVA/SpringBoot, .NET, JavaScript/Angular, beste batzuk.

Zinpeko adierazpen bidez (**III. eranskina**) egiaztatu behar dira adierazitako jakintza espezifiko guztiak.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte izan beharko dira.

Hautaketa enpresak adierazitako ezagutzak egiaztatu ahal izango ditu.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **2. FASEA: MEREZIMENDUAK BALIOESTEA (gehienez 15 puntu):**

### **A) Eskatutako ezagutza espezifikoekin edo gauzatu beharreko eginkizunekin lotutako prestakuntza osagarria (gehienez 5 puntu):**

- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako master ofiziala edo baliokidea, gutxienez 60 ECTSkoa: 3 puntu.
- Eskatutako ezagutza espezifikoekin edo gauzatu beharreko eginkizunekin lotutako 300 ordu baino gehiagoko ikastaro ofizialak:
  - Ikastaro bat: 0,5 puntu
  - Bi ikastaro edo gehiago: 1,5 puntu
- Berdintasunari buruzko prestakuntzagatiko puntuazio gehigarria  
2. fasean 0,5 puntu gehiago emango zaizkie gutxienez 20 orduko prestakuntza espezifikoa egiaztatzen dutenei honako arlo hauetan:
  - Emakumeen eta gizonen berdintasuna
  - Indarkeria matxistaren prebentzioa
  - Hizkera inklusiboa eta irisgarritasun teknologikoa

### **B) Hizkuntzak (3 puntu):**

#### **B.1) Hizkuntza: euskara (gehienez 1,5 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: **puntu 1.**
  - C1: **1,5 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

#### **B.2) Hizkuntza: ingelesa (gehienez 1,5 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- B1: puntu 0,5.
- B2: puntu 1.
- C1: 1,5 puntu.
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

### C) Esperientzia (gehienez 7 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidez egiaztatu beharko da.

Lau urte baino gehiagoko esperientzia azken sei urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan.	- Oso ondo betetzen du: <b>7 puntu.</b> - Nahiko ondo betetzen du: <b>5,25 puntu.</b> - Ondo betetzen du: <b>3,5 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat du: <b>1,75 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alor dezente ditu: <b>0 puntu.</b>
---	---

Hiru urte baino gehiagoko esperientzia azken sei urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	- Oso ondo betetzen du: <b>7 puntu.</b> - Nahiko ondo betetzen du: <b>5,25 puntu.</b> - Ondo betetzen du: <b>3,5 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat du: <b>1,75 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alor dezente ditu: <b>0 puntu.</b>
---	---

Balioesteko:

Honela balioetsiko da:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen
------------------------	---



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

	ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du	% 100
Nahiko ondo betetzen du	> % 66 eta < % 100
Ondo betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat du	> % 0 eta <= % 33
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alor dezente ditu	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte izan beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

### **3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBA ETA PROBA PSIKOMETRIKOA**

- Proba psikometrikoa **nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da (**GAI-EZ GAI**).

Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilerara eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren balioesteko.

- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.

#### **EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBA:**

- Aurrez aurre eta deialdi bakarrean egingo da.
- Proba egingo zaie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituztenei. Formula honen arabera egingo da kalkulua:

$$\frac{\text{á} \times \text{ú} \times 4}{30} \left[ \begin{array}{l} \text{ú behin betiko onartuen kopurua} \times 0,3 \\ \hline 30 \end{array} \right]$$



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Ezagutza teknikoaren proba:
  - Xedea izango da ezarritako denboran galdetegi bati (zenbait erantzunen artean hautatzeko galderak) idatziz erantzutea.
  - Proba hau zuzentzean, ondo erantzundakoen kopuruari errore kopuruaren herena kenduko zaio ( $V = A - E/3$ ). Erantzun gabeko galderak ez dute zigorrik izango. Azken balorazioa ehunenetan moztuko da.<sup>12</sup>
- Balioespena 20 puntukoa izango da, eta ezagutza teknikoaren proban 10 puntu edo gehiago lortu dutenak eta proba psikometrikoetan gai izan direnak izango dira gai. Aurrekoa gorabehera, epaimahaiak 10 puntutik beherako beste puntuazio bat ezarri ahal izango du gai izateko, probak nork egin dituen jakin aurretik.
- 3. fasean gaitzat jotzen diren hautagaiak aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Pertsonaren bat ez gai izanez gero edo 3. fasean uko eginez gero, AKSAk probak egin ahal izango dizkie puntuazio onenak dituzten hurrengo pertsonari, hautagai egoki nahikoa egon dadin, nahiz eta hurrengo fasera (laugarrenera) pasatzen diren hautagaiak hogeita hamar onenak izan ez.

#### **4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (gehienez 20 puntu)**

- **Nahitaezkoa da.**
- Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketa 2. faseko emaitza orokorrean hogeita hamar puntuaziorik onenak lortu dituzten eta 3. fasean gaitzat jo diren pertsonari egingo zaie.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak balioestea izango du helburu.
- Elkarrizketak bi zati izango ditu:
  - **Gaitasunak**: Honako gaitasun hauek balioetsiko dira (gehienez 10 puntu):
    - Komunikazioa eta interes taldeak kudeatzea (2 puntu).

V= probaren balorazioa, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.  
Moztea da dezimalak ezabatzea borobiltzerik gabe, dezimal jakin batetik aurrera. AKSAREN kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Arazoak konpontzea eta pentsamendu kritikoa (2 puntu).
- Dokumentazio teknikoak (2 puntu).
- Aldaketa kudeatzea (2 puntu).
- Autonomia eta proaktibitatea (2 puntu).

Fase honetako puntuazioa aztertutako gaitasunetako bakoitzean eskala honen arabera lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu.
  - Gaitasun maila ertaina: puntu 1.
  - Gaitasun maila altua: 2 puntu.
- **Ezagutza teknikoa:** Honako ezagutza hauek balioetsiko dira: (gehienez 10 puntu)
1. Ezagutza funtzionalak eta metodologikoak (3)
    - Betekizunak biltzea eta aztertzea
    - Garapen metodologiak
    - Administrazio publikoetako edo erakunde handietako sistema korporatiboek eusten dituzten negozio prozesuen end-to-end ezagutza funtzionala: izapidetzea, baliozkotzeak, espedienteak/dokumentuak kudeatzea, jakinaraztea, erregistratzea, ordainketak/kobrantsak, bateragarri egiteak, aginte taulak, etab.
  2. Lotutako ezagutza teknikoak (3)
    - Prozesuen eta datuen ereduak egitea
    - Softwarea diseinatzeko printzipioak
    - Aplikazioen arkitekturak
    - Datu baseak
    - Dokumentuak eta espedienteak kudeatzeko sistemak
    - Informazio sistema korporatiboak
    - Elkarreragingarritasunaren kontzeptuak
    - Aplikazioen segurtasun printzipioak
  3. Plataformen ezagutza tekniko espezifikoak (analista batek izan behar duen bestekoa) (3)  
Gutxienez plataforma edo ekosistema teknologiko bat ulertzea (Java/SpringBoot, .NET/C #, Low Code, beste batzuk...):



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Integrazioak
- Datuak maneiatzea
- Probak
- Trazabilitatea
- Gorabeherak aztertzea
- Hedapenen jarraipena

Ezagutzak identifikatzeko eta plataformen artean transferitzeko gaitasuna baloratuko da.

#### 4. Lege eta administrazio araudia (1)

- Sektore publikoari aplikatu beharreko IKTen inguruko legeak eta araudiak
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
  - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
  - Zati teknikoa: 5 puntu.
- Hogeita hamar hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalasetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Fase hau amaitu ondoren gai diren pertsonak hogeita hamar baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeraren arabera, gai den hurrengo hautagaira edo hautagaietara jotzeko.

#### **FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
Ez dagokio	15	20	20	55